

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

ETAko militantea zela ustez hil zen gazte hura

Gregorio Fernandez Riañok 21 urte zituen Muskizen zendu zenean, 1979ko martxoaren 9an. Udaltzain bati pistola kentzen saiatzen ari zenean hil zen, borrokan tiro egin baitzuen armak. “Voluntarios, semillas de libertad” liburuak baieztatzen duenez, ETAko kide zela uste zuen gazteak hil zenean, baina ez zen horrela. Bere burua erakunde armatuaren arduraduntzat aurkezten zuen morroi batek manipulatu zuen zenbait ekintza eta lapurreta egiteko, egitera behartzeko. Oraindik ez da argitu zein zen gizatxar hura.

“Indarkeria iraultzaileak” izaera eskuzabala eta epikoa du horretan aritu eta horretan lagundu edo babesa eman dutenentzat, baina horiek denek badakite horrek ere badiuela, ezinbestean, alde ilunak; adibidez, infiltraziotik datozenak, poliziaren infiltraziotik eta infiltrazio ideologikotik. Beharbada, bigarren hori da arriskutsuagoa, ekintzailea oharkabean etsaiaren parametroetan kokatzen baita. Hamaika adibide dago historian.

Borroka armatua zilegi izan dela eta eraginkortasuna izan duela uste dutenek ere ondo dakite barneratzeko oso zailak diren egoerak sortzen dituela. Hainbeste azaldu zuen, adibidez, ETAk Hipercor-eko atentatuak eragindako sarraskian –edo sarraskia gerta ez zedin– izandako ardura onartzerakoan.

Egoera nabarmen aldatu da, prozesu politikoaren garapena eta ETAk hartutako erabakiak direla-eta. Horregatik dira hain zentzugabeak, esate baterako, orain dela gutxi Derion izandako autobus erreketaren modukoak (nolabait, ekintza planifikatu bat, ildo bat ireki nahi duena, ez bat-bateko erantzun herritarra). Beharbada, zenbait urtez ETAk berak bere garaian egindako diskurtsoak, kale borrokan ez zuela aitasunetik nabarmenduz, oinarri bat ere eman die halako saltsetan aritzeko prest egon daitezkeen sektore txiki horiei, nahiz eta presoan alde aldarrikatzen diren horrelako ekintzei espresuki uko egin dion EPPK-k berak. Hala esan zuen, 2013ko abenduan, urteotan egindako adierazpen nagusian: «Ontzat ematen dugu ETAk borroka armatua bertan behera utziz geroztik sortutako agertoki berria, eta Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borroka aurrerantzean bide eta molde politiko eta demokratikoetatik egitea,

norabide horretan hartu diren erabakiekin bat eginez. Hortaz, inposizioari, zapalkuntzari, eskubide urraketari aurre egiteko iraganean baliatu moldeari, aurrera begira uko egitea berresten dugu. Agertoki berriarekiko gure konpromisoa erabatekoa da, berau sendotu eta errotzeko EPPK-k bere ekarpena egiteko erabakia berresten du».

Begira, ordea, Derioko ekintzaren aldarrikapenak jasotakoa: «Kartzelan dauden gehienek biolentzia erabili dute eta gure ekintza modu sinplistan kritikatzeari, zeharka, preso politiko gehienek borrokari irain egiten diote».

Bi paragrafoen artean bada alderik, ezta?

LEHEN ERE ERREFUSATU DITU EZKER ABERTZALEAK HALAKOAK

Dena dela, ez estrategia politiko osaturik ez gutxieneko herri babesik ez duten halako jokabideek ezker abertzalearen gaitzespena jasotzea ez da gaurko kontua, ezta gutxiagorik ere. Horretan bakarren batzuk oso oker daude,

Ezker abertzaleak lehenago ere, eredu politiko-militarra indarrean zenean ere, salatu ditu ENAMen estrategiatik kanpoko ekintzak. Oraingoan Sortuk erabilitako hitzak baino askoz ere gogorragoekin

akaso mugimendu independentistak, ilegalizazio garaia dela-eta, transmisio arazoak izan dituelako edo, zergatik ez, sektore batzuetan zenbait desbideratze ideologiko errotu direlako, adibidez, «sufrikarioaren sozializaziotik» etorritakoa.

Ezker abertzaleak lehenago ere, eredu politiko-militarra indarrean zenean ere, salatu ditu Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua deritzanaren estrategiatik kanpoko ekintzak. Egia esan behar bada, oraingoan Sortuk erabilitako hitzak baino askoz ere gogorragoekin. Portugaletako *Casa del Pueblo*-k 1987an koktel molotovekin jasandako erasoaren harira (bi pertsona hil ziren), ekintza hura baino haragoko hausnarketa plazaratu zuen Jarrai gazte antolakundeak, «beren nahiak errealitatearekin nahasten dituzten eta etsaiak errazki erabil ditzakeen horien» jokabideaz ohartarazteko •